

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILBURUAREN AGINDUA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA ABIATZEN DUENA

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari egozten dizkio transizio energetikoari eta ingurumen eta klima-aldaketaren aurkako borrokari dagozkien alorretako egitekoak eta jardun-arloak, hurrenez hurren 8.1. artikulua r) eta s) ataletan.

Eskumen hori erabiliz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sail honetatik egokitzen da transizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko lege-aurreproiektu bat egitea.

Proiektua egiteko prozedura eta haren izapidetzea Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritakoaren arabera formulatu behar dira.

Abenduaren 22ko 8/2004 Legearen 4. artikulua lehenengo atalak hauxe dio: “xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gaineko eskumena duen Saileko Sailburuaren Aginduz hasiko da”.

Adierazitakoa kontuan hartuta, eta abenduaren 22ko 8/20 Lege horretako 5.1. artikuluaekin bat etorriz, hor aipatzen baita zer eduki izan behar duen prozedura hasteko Aginduak,

EBATZI DUT:

Lehena. - Xedea.

Agindu honen xedea da Trantsizio Energetiko eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

Bigarrena. - Arauaren xedea eta helburua. Proposatutako arauaren edukia.

Trantsizio Energetiko eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektuaren xede eta helburua da jarraian adierazitako helburuak lortzen laguntzen duen arauzko esparru juridikoa ezartzea:

Klima-neutraltasuna Euskadin lortzea, beranduz jota 2050ean, urte horretan ez dadin egon berotegi-efektuko gasen emisiorik. Horretarako, klimaren eta energiaren alorreko transizio-prozesu bidezko bat hasi beharko da.

- EAEko lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia handitu.

- Deskarbonizazio-prozesua bultzatu euskal sektore sozioekonomiko guztietan, jarduera ekonomikoa, enpresa-lehiakortasuna, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea hobetuz.
- Trantsizio energetikoko prozesuaren aukerak aprobetxatu teknologia eta enpresak garatzeko gaitasunak bultzatzeko.
- Berotegi-efektuko gasen emisioen aldetik neutroa eta erresilientea den ekonomiara zuzendutako bidezko trantsizioa bermatu.

Bere artikuluetan, Aurreproiektuak honako puntu hauei buruzko xedapenak jasoko ditu, beste gai batzuen artean: arauaren xedea, haren printzipioak eta definizioak; eskumenen banaketa eta klima-aldaketaren alorreko koordinazio-organoen sorrera; Legearen xedea lortzera zuzendutako plangintza, helburuak, ekintza-planak eta bestelako tresnak.

Bigarrena. - Bideragarritasun juridiko eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Eskumena

Hasieran egin nahi den lege-aurreproiektua bideragarria da juridikoki eta materialki, zeren eta, Euskal Herriko Autonomia Estatuaren 11.1.a) eta 11.2.c) artikuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da –hurrenez hurren- ingurumen eta ekologiaren alorreko eta energia-erregimenaren alorreko legedia bere lurraldean garatzea eta betearaztea.

Eskumen organikoa

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari egotzen dizkio transizio energetikoari eta ingurumen eta klima-aldaketaren aurkako borrokari dagozkien alorretako egitekoak eta jardun-arloak, hurrenez hurren 8.1. artikulua r) eta s) ataletan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren barruan, eta irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Ingurumen Sailburuordetzak ditu egotzita ingurumenari eta klima-aldaketaren aurkako borrokari dagokien jardun-arloaren zuzendaritza eta koordinazioa, eta Industria Sailburuordetzak energia eta meategiei dagokiena.

Eskumen funtzionala

Beste alde batetik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburuak badu ahalmena bere eskumenekoak diren gaiei buruzko lege-proiektuak proposatzeko, Jaurlaritzak onartu ditzan.

Sailaren barruan, arauzko testuaren proiektua egiteko prozeduraren izapideak egiteko zeregina Ingurumen Sailburuordetzako titularrari egotzi behar zaio. Sailburuordetza

horri egokituko zaio proiektua egitea, Industria Sailburuordetzarekin lankidetzan etengabean arituz.

Ordenamendu juridikoan gaineko eragina.

Nazio Batuen Erakundearen Klima-aldaketaren Adituen Gobernu arteko Taldeak txosten berezi bat egin du “1,5°C-ko berokuntza globalak –garai industrialaren aurreko mailak erreferentziatzen hartuta– planetan izango lukeen eraginari buruz eta munduko berotegi-efektuko gasen emisioek horretarako egin beharko luketen ibilbideei buruz”, eta hor berresten du klima-aldaketaren inpaktua azkar areagotzen ari dela eta esaten du 2°C-ko berokuntzarekin mundua oso larriki ukituta egongo litzatekeela.

Diferentzia handia dagoenez tenperatura 2°C-era igotzearen ondorioen eta 1,5°C-ra igotzearen ondorioen artean, txostenak kontsideratzen du tenperaturaren igoera 1,5°C-ra mugatzea ahalbidetzen duen ibilbide batean kokatzeko munduko CO2 emisioak % 45 murriztu behar direla 2030erako, 2010. urtea erreferentziatzen hartuta, zero izan behar dutela 2050aren inguruan, eta mendearen zertxobait gehiago aurreratu ondoren neutraltasuna lortu behar dela berotegi-efektuko gainerako gasen dagokienez.

Kontsumo energetikoa berotegi-efektuko gasen emisioen eragile nagusia da, hots, planetako klima-aldaketaren kausa nagusia diren emisioen eragile nagusia. Horregatik, irtenbideen parte handi bat arazoari aurre egiteko xedez energiaren alorrean garatu behar ditugun jardueren eskutik ere etorriko da. Horrek esan nahi du kontsumo energetikoarekin zerikusia duten jarduera guztiek funtsezko rola izan behar dutela ekonomia gero eta gehiago deskarbonizatzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko estrategian. Trantsizio energetiko hori jasangarritasunez, ekonomia garatuz eta aurrerabide sozialarekin egitea da erronka nagusia. Helmuga horietara iristeko, trantsizio energetiko egoki bat ezarri behar da, alegia, ingurumena gehiago errespetatzen duten energia konbentzionalak bistatik galdu gabe bere garapena energia berriztagarriak nagusiki eta modu ia eskusiboan erabiltzean oinarritzen duen trantsizio energetiko bat. Prozesu hori zentzuzko denbora-horizonte batean burutzeko, aurrera egin beharko da ekonomiaren deskarbonizazioa lortzea ahalbidetzen duten teknologien garapenean, energia berriztagarrien aprobetxamendua, kontsumo energetikoaren elektrifikazioa eta kontsumitzaileen parte-hartzea bitartekotzat hartuta.

Bere bosgarren ebaluazio-txostenean (AR5), IPCCk azpimarratzen du maila globalean honako inpaktu hauek espero direla: elikadura-segurtasuna ahulduko da; biodibertsitatea eta azaleko zein lurpeko ur-baliabideak murriztuko dira; hazkunde ekonomikoa geldituko da eta pobrezia-eremu berriak sortuko dira; pertsonen desplazamendua eta gatazka bortitzak areagotuko dira; pertsona, ondasun, ekonomia eta ekosistemek pairatzen dituzten arriskuak handituko dira, uholdeak gertatuko dira kostaldean eta barnealdean, eta baita lur-irristatzeak, airearen kutsadura, lehorteak, itsas mailaren igoera eta kostaldeko ekaitzak ere.

Eskualdeek eta toki-erakundeek klima-aldaketa arintzeko neurrien % 70 baino gehiago hartzen dituzte, eta berari egokitzeko neurrien % 90eraino; gainera, EBko legedi osoaren % 70 aplikatzen dute, eta, hortaz, gastu publikoaren herena eta inbertsio publikoaren bi heren kudeatzen dituzte. Horrenbestez, klima-neutraltasuna 2050erako lortzeko helburua eskualdeen eta toki-erakundearen sostengu eta lankidetzarekin lortu behar da.

Alde horretatik, aipatzekoa da Euskadiko 2018ko BEG emisioak Europar Batasuneko emisio guztien % 0,4 izan zirela eta isurle nagusiak sektore energetikoa, garraioa eta industria izan zirela, emisio guztien % 86rekin.

1990 eta 2018 bitartean, Euskadiko emisioak % 9 jaitsi ziren, eta BPGa % 91 igo zen; beraz, emisioen intentsitatea % 52 murriztu da. Industriatik eratorritako emisioak % 53 jaitsi ziren eta sektore energetikoarenak % 8. Garraioaren emisioak, aldiz, % 130 igo ziren garai berean.

2005. urteari dagokionez, emisioak % 26 jaitsi ziren, eta BPGa % 17 igo zen; beraz, emisioen intentsitatea % 36 murriztu zen. Industriatik eratorritako emisioak % 38 jaitsi ziren eta sektore energetikoarenak % 40. Garraioaren emisioak, aldiz, % 15 igo ziren garai berean.

Prozesu hori zentzuzko denbora-horizonte batean burutzeko, energia berriztagarrien aprobetxamenduaren, kontsumo energetikoaren elektrifikazioaren eta kontsumitzaileen parte-hartzearen bidez ekonomiaren deskarbonizazioa lortzea ahalbidetzen duten teknologien garapenean aurrera egiten duen bidezko trantsizio energetiko bat egin beharko da.

Klima-aldaketari dagokionez Euskadirako prestatu diren bereizmen handiko eszenarioek iragartzen dutenez, muturreko tenperaturak 3°C igoko dira XXI. mendearen amaierarako, udako hilabeteetan.

Tenperatura eta prezipitazioei begira Euskadirako espero diren aldaketa nagusiak honako hauek dira:

Tenperaturen igoera orokortua: aurreikusten da tenperaturak modu orokorrean igoatea; eszenario eta modeloaren arabera, igoera hori 1,5°C eta 5°C bitartean aldatzen da. Aurreikusten da igoera handiagoa izatea mendearen amaieran eta nabariagoa izatea barnealdean kostaldean baino. Tenperatura baxuko egunekin lotutako indizeek etorkizunean jaisteko joera izango lukete; tenperatura altuekin lotutakoek, aldiz, areagotzeko joera izango lukete.

Prezipitazioen erregimenaren aldaketa: aurreikusten da prezipitazio maila apur bat jaistea XXI. mendearen amaieran. Batez besteko aldaketa % 5etik beherakoa izango litzateke, azken garaian izan ezik, orduan % 10 eta % 15 bitartekoa izango bailitzateke, eszenarioaren arabera. Aurreikusten da prezipitazio gutxiago egotea baina hauek gogorragoak izatea, eta horren ostean lehorre-aldi luzeak etortzea.

Uraren tenperatuaren berokuntza eta itsas mailaren igoera: XXI. mendearen amaierarako, itsasoren tenperatura 1,5°C-tik 2,05°C-ra igoko da euskal kostaldean, sakoneraren lehenengo 100 metroetan. Itsas mailaren igoerari dagokionez, zenbait azterlanek erakusten dute igoera hori gutxienez 0,45-0,5 metrokoa izango dela RCP 4.5ean eta 0,65-0,825 metrokoa RCP 8.5ean, Bizkaiko golkoan. Orokorrean, itsas mailaren batez besteko igoerak areagotuko du uholde-arriskua duen osoko eremua, eta baita uholdeen maiztasuna ere gaur egun uholde-arrisku duten eremuetan.

Erronka horiei erantzuteko beharrezkoa da esparru juridiko bat ezartzea, berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna 2050erako lortzeko eta lurraldea erresilienteagoa

izan dadin klimarekin; horri begira, instituzioen arteko koordinazio-mekanismo eta – organoak sortu behar dira trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren alorrean.

Aukeraren ikuspuntutik, Euskadik badu abiapuntu hobezin bat trantsizio energetikotik eratorriko diren inpaktuak aprobetxatzeko, bai ingurumenaren alorrean eta bai alor sozial eta ekonomikoan, bere pisu espezifiko eta garrantzia ikusita. Badu enpresa-ehun indartsua, zientzia eta teknologiako azpiegitura sendo batean sostengatuta, euskal ekonomian pisu mardula duen sektore energetiko batekin; sektore honek, gainera, oso ondo dago kokatuta Estatuko gainerako erkidegoen aldean.

Lege-aurreproiektuak aurreneko aldiz arautuko du gai hau Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, hortaz ez da inolako eraginik aurreikusten ordenamendu juridikoan, bereren sorrerak ekar dezakeen eraginetik harago.

Lege-aurreproiektuaren xedea zein den ikusita, aurreikustekoa da araua garatzera zuzendutako araudiak onartu beharko direla geroago.

Ekonomiaren eta aurrekontuaren gaineko eragina

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, dagokion txosten ekonomikoa prestatuko da, horren bidez aztertzeke zer kostu izango duen arauaren etorkizuneko aplikazioak eta zer eragin izango duen aplikazio horrek Euskal Autonomia Erkidegokoaren Aurrekontu Orokorretan. Orobat, txosten horretan aztertuko da arauak beste Administrazio batzuetan eta partikularrean izango duen inpaktua, eta baita ekonomian izango duen inpaktu orokorra ere.

Bidezkoztat jotzen diren izapideak eta txostenak.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearekin bat etorritik, hasierako Aginduak adieraziko du zer izapide eta txosten jotzen diren bidezkoztat jorratu beharreko gairako.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren aplikazioari buruzko Jarraibideak onartu zituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiarekin bat etorritik, kontsideratuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa (herritarren parte-hartzea lege eta araudi izaera duten arauak egiteko prozeduran) integratuta dagoela Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2004 Legearen 4. eta 5. artikuluetan aratzen den hasierako fasean, kontuan hartuta herritarrekiko interakzio-izapide bat dela, arauzko testu juridiko jakin bat onartu aurretik egin behar dena.

Izapidea bete egin da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburuaren Aginduaren bidez, eta baloratuko diren zenbait ekarpen jaso dira.

Lege-aurreproiektua aurretiaz onartu ondoren, testua Eusko Legebiltzarrerara bidali beharko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1. artikulua betetz, 7/1981 Legea aldatu zuen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako erredakzioan.

Aurretiazko onarpen Agindua, arau-proiektuarekin batera, Legesarea lankidetzarako gunean argitaratuko da (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren 1.2. atala). Halaber,

gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoa betez, Xedapena Legegunea atarian argitaratuko da.

Espedientean jaso beharko da, lehen aipatutako txosten ekonomikoaz gain, arauaren behar, egokitasun eta helburuei buruzko justifikazio-txosten bat.

Halaber, txostenean azaldu beharko da enpresaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntzeari buruzko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa betetzeko xedez.

Aurreproiektua entzunaldiaren izapidetik igaroko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurak egiteari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Orobat, testua beste Administrazio batzuei parte-hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapidetik igaroko da, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Honako txosten hauek eskatuko dira:

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Zerbitzuen Zuzendariaren txosten juridikoa, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3. artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.
- Emakunde-Emakumenaren Euskal Institutuaren txostena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez genero eraginaren aurreko ebaluazioa egiteari buruz onartutako Jarraibideekin bat etorritz.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.
- Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan aurreikusitakoa betez.
- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90. artikuluan ezarritakoan oinarrituta.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruz urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Legearen testu bateginaren III. Tituluaren IV. Kapituluaren ezarritakoaren arabera, baita barneko ekonomiaren kontrolaren eta

kontabilitatearen erabilera EA Eren eremuan garatzen duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ere ezarritakoaren arabera.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoa betez.

Esparru horretan, eta Jaurlearitziari buruzko Legearen 56.2. artikuluan ezarritakoa betez – Jaurlearitziari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legean emandako erredakzioan-, “Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten”.

Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Ez da beharrezkotzat jotzen inolako izapiderik egitea Europar Batasunaren aurrean.

Erredaktatzeko sistema.

Aurreproiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioan aurreikusitako moduan erredaktatu beharko da, zeren hor onartzen baitira Lege, Legegintzako Dekretu, Dekretu edo Ordenaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzetan egiteko neurriak.

Bai aurrekoa eta bai euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legearen – azaroaren 24ko 10/1982 Lege- 8.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema izango da testua Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) bidez itzultzea, Euskal Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin bat etorriz.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburua
MARIA ARÁNZA ZU TAPIA OTAEGI
Elektronikoki sinatuta